

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Bixenta Arrieta Arrieta

*Donostia,
Gipuzkoa
(1929)*

Aurkibidea



Biografia



Altza herrian jaio zen (gaur egun Donostiako auzoa). Kaleko etxe batean jaio arren, umetan Pelegriñene baserrira joan ziren bizitzera. Bost senidetan hirugarrena zen. Gurasoak altzatarrak zituzten. Aita igeltseroa zen. Hamaika urte arte ibili zen eskolan Bixenta, lehenengo Herrerako Peruene Berri etxean eta gero Altzako plazan bertan. Baserriko lanetan trebatu zen umetatik. Izeba plazara joaten zen tratuarekin, zaldi-karroa hartuta; esnea ere partitzen zuten. Kalera ezkondu zen, Errenteriako [Seberiano Iñarra](#)rekin. Josten ikasi zuen, eta etxetik egiten zuen lana.

Zintak

DON-098

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-03-25
- **Iraupena:** 109 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Pelegriñene baserriko bizimodua

- **Erref:** DON-098/002
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:01:08. **Bukatu:** 00:03:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Altzako etxe batean jaio zen, eta gero baserrira joan ziren bizitzera; han jaio zen azken senidea. Pelegriñenen. Baserrria nolakoa zen. Grosera eta Parte Zaharrera joaten ziren esnea partitzera, zaldi karroarekin. Errenteriara feriara. Pelegriñenen 11 lagun bizi ziren.

2. Baserriko lanak, umetan

- **Erref:** DON-098/003
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:03:46. **Bukatu:** 00:05:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

<p>Baserriko lan banaketa. Aita eta anaiak igeltseroak. Ganadua eta baratzea. Bi ahizpa zaharrenak osabarekin ibiltzen ziren. Gutxi joan zen eskolara.</p>

3. Herreran eta Altzan eskolan

- **Erref:** DON-098/004
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:05:07. **Bukatu:** 00:07:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>11 urte arte ibili zen eskolan, Herreran eta Altzan. Herrerako eskola Perueneberrin. Altzako eskolan Candida Calvo zen maistra.</p>

4. Gerra garaiko aldaketak, eskolan

- **Erref:** DON-098/005
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:07:49. **Bukatu:** 00:10:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Gerra etortzean, euskaraz egitea galarazi zieten. Jaunartze txikia euskaraz egin zuten, baina handia erdaraz. Etxean ez zieten erdaraz egiten uzten.

Transkripzioa

-Ta zu eskolan ibili zifan garaiyan gerra orduan pasata edo orduantxe...
-Bai, zeatik e beno, ordun, zeatik ni hogeita beatzikoa naiz, eta gerra hasi zan hogeita hamaseiyian. "O sea que" nik zazpi urte, ba... bai, orduako behintzat Altzan.
-Eta zerbait gogoratzen dezu, gerrakin lotutakua? Eskolan aldaketarik izan zan, ala...?
-Eskolan aldaketa izan zan? Bai, zeatik erderaz hitz eitia, euskeraz hitz eitia galarazi in ziguten. Eta dana erderaz in bihar, ta... bueno, dana erderaz iten gendun, klaro, eskolan. Geo bata bestian zean umiak danak esto... erderaz aitzen giñan. Ta hoi baiño gehiyo esango izut: ordun garai hartan iten zan komuniyua; iten zan zazpi urtekin komuniyo ttikiya esaten zana, ta geo hamarrekin solemnia. Hamar-hamaika. Iten zan komuniyo solemnia. Ta komuniyo ttikiya iteko, klaro, dotriña ikasi behar izaten zan, e, bai bateako

ta bai besteako. Eta komuniyo ttikiya iteko nik euskeraz ikasi nun, gue etxian eakutsiya, ta euskeraz. Komuniyo ttikiya iteko. Eta, klaro, izaten zan dotrina´re izaten zan, klaro, txikiyauak, gutxiyo ikasi behar zan geo baiño, geo bezela baiño. Baiño behintzat hoi, eta komuniyo ttikiya iteko, dotrina euskalduna. Eta geo nola galarazi in zuten euskalduna, eta erdalduna sartu xixkiguten bai libru, dotrina... dana erdalduna nola gendun, ta geo ordun gendun bikayua hemen, berriz, bueno... harekin erdez in behar zan! Eta geo komuniyua, beste komuniyua in biharrik... ikasi bihar izandu nun beste dotrina, erdalduna.

-Erdalduna.

-Erdalduna ikasi bihar izandu nun. Ta eskolan genbiltzala hoi, ta gaiña eskolan genbiltzala, klaro... ahizpa, ne hurrungo ahizpa ta... biyek etortzen giñan eskolaa ta zea. Ta geo etxea jundakuan´e klaro, egun guziya erderaz pasatzen gendun hizketan, ta etxea jun ta erderaz hasten giñan. Umien kontua, bakizu. Egun guziya erderaz... eta etxea jun ta erderaz hasten giñan hizketan. Joesus! Gue aitak bakizu ze esaten zigun? “Beira, hemendik kanpo ez zait inportik frantsesez aitzen bazeate´re, baiña hemen euskeraz!”. Esaten zigun: “Hemen euskeraz”. Ta joño... kontuatu gabe hasten giñan erderaz, ta nahikua izaten genun: “Bixenta!” o “Pepita!” deitz... uju itia hola nahikua izaten genun, baakigu, bagenekigun zertako zan. Baiña gu kontuatu gabe hasten giñan erderaz.

5. Dotrina ikasten bikarioarekin

- **Erref:** DON-098/006
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:10:32. **Bukatu:** 00:13:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Bikarioak sokarekin jotzen zion dotrina ez zekienari. Ikasteko erraztasuna zuen berak. Bikarioa Don Felix Amiano zen. Sermoia ere erdaraz egiten zuen. Meza latinez.

Transkripzioa

-Dotriña bikariyuak erakusten zun?

-Bikaiyuak hartu iten zigun dotrina. Ikasi... klao, eskolan´e hartu iten zigun. Ikasi in bihar gendun ba etxian, geok geren era ikasi behar genun. Eta bikaiyuana juten giñan, komuniyua in baiño leno juten giñan, ta genun bikaiyo bat, bueno... Ateatzen zan hola, kordoiya hola jarriyakin. Gerrin ibiltzen duten kordoiya bi doblan hola, bixkarrea hola botiak in ateatzen zan. Etortzen zan ta... ordun giñan ez dakit hamahiru mutil ta hamaika neska... eo alrebes? Behintzat hola giñan. Eta harek galdera in dotrinana eta ez balzenekin, dda! Zeakin jotzen zizun, soka harekin jotzen zizun. Ta hola ta zean... mutilletan libratu zan bate jo be bat bakarrik. Behin´e jo gabe. Ta nesketan bat bakarrik jo zun.

-Bat bakarrik jo zun?

-Bai, bat bakarrik jo zun, nesketan bat bakarrik jo zun.

-Eta ez ziñan zu izan...

-Ez, ez, ez. Ez da nik esateatik, baiño ikasten zea izandu deu... erreztasuna

izan izandu deu. Zea, bai. Gaiñea, senide danak izan izandu deu. Ta dotrina, berriz, joe gue amakin, ikasi beharko! Ez zigun jo, ta kastigatu ta ez zigun iten, e, baiño dotrina ikasi bai. Baiño errex ikasi izandu genun, erreztasuna bagendun senide danak´e bai. Erreztasuna bagendun hola... gauzak ikasteko.

-Eta bikariyuak nola zun izena?

-Don Felix. Don Felix Amiano zun izena.

-Eta karlista zan.

-Ez dakit nungotarra zan, baiño gogorra zala bai, eta euskaldunen oso faboritua´re ez. Egun batian hor basarriko aitton batek... klaro, meza nausira etorri eta sermoiya´e erderaz iten zun ordun, sermoiya´re erderaz iten zun harek. Eta hor basarriko aitton bat, ta harek esan... egun batian esan omen ziyon /omentziyon/ aber zeatik iten zun sermoiya erderaz. Eske ez zuela entenitzen ezer. A, eta leno´re nehiko sermoiya aitua izango zala behintat, eta ez zula inportik esan omen ziyon.

-Eta aurretik latíñez ere ematen zan meza, ez?

-Bai. Ordun latíñez ematen zan, baiña sermoiya erderaz.

-Orduan, entenditu, ezer ez!

-Ezer. Ez bat eta ez bestia aittonak. Guk erderaz bueno, sermoiya zetu bai, zeatik erderaz ikasi genun ta /da/.

6. Etxeko otoitzak eta bedeinkazioak

- **Erref:** DON-098/007
- **Iraupena:** 0:03:57. **Hasi:** 00:13:07. **Bukatu:** 00:17:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Etxean arrosarioa egunero. Gurutzea ogiari. Ur bedeinkatua. Erramua. Auzoko jendea geratzen zen hildakoa zaintzen. Bizkarrean eramaten zuten hilkutxa. Elizara beltzez joaten ziren. Hiru emakumek mantila eramaten zuten. Argizaiola hilberriarentzat, urte guztian. Etxe bakoitzak bere tokia elizan. Lutoaren iraupena. Apaiza gaixoei elizakoa ematera joaten zenenean, jendea belauniko.</p>

Transkripzioa

-Eta zuek etxian errezatuko zenuten, errosariyoa eta...

-Bai, bai, gue amak hemen, gure [...] izaten zan egunero.

-Eta bazkaldu aurretik eta...

-Bai, errezua.

-Aita Guria ta hola?

-Aita Guria.

-Eta ogiya... gurutzia iten zeniyoten ogiari?

-Aurrena ebakitzen hasteako bai, eta lurrea eroitzen baldin bazan puska bat edo, hartu eta muxu eman´e bai. Bai.

-Eta ur bedeinkatua-ta eukitzen zenuten etxian?

-Bai, bai. Oain´e bakat, e!

-Eta zertarako erabiltzen zenuten?

-Bueno, ba... difuntun bat zetzen baldin bazan, o zeian, ba ordun zetzen zan, baso batian jarri ur bedeinkatua eta erramu axka batekin, eta etortzen

zan jendia ikustera, gorputza ikustera, ta harekin zea botatzen zan ta. Geo Aita Guria errezatu. Ohitura hola zan.

-Eta hildako bat zegonian etxian, gero gauian ere norbait geratzen zan zaintzen, ezta?

-Bai, jendia izaten zan, auzuak-eta izaten zian. Bai, orduan bai, orduan auzoko jendia. Klaro, ez zan oain bezela, tanatoyota ta ez zan eamaten ta. Ordun nola etxian izaten zan dana...

-Eta gero nola eramaten zan...

-Bizkarrez.

-Bizkarrez?

-Bai.

-Eta familiko jendiak eramaten zun?

-Bai, jeneralian familikoak.

-Eta atzetik juten zan norbait?

-Jendia barra-barra, entierrora zihoan jendia dana.

-Eta familikoak jantzita ta, normal ala kapekin, beltzez?

-Beltzez, beltzez, beltzez. Ta geo elizara juteko; hoi bai, elizan sartzeko beltzez juten zan ta famili alderatuenakin... gu, gure gurasuak hil zianian, gu hiru ahizpak jun giñan. Hiru izaten zian jun biharrak, eta gu hiru ahizpak jun giñan. Elizak beak jartzen zitun, zeak, este, mantilla haundi batzuk. Eta hua e bizkarretik hartuta jun bihar izaten zan.

-Eta gero hemen elizan argizaiyolarik edo erabiltzen zenuten?

-Bai, zean, santu guztitan ta bai. Urte guztin, hilberriya baldin bazan urte guztin. Lurrian jartzen zan holako trapu beltz bat. Geo papel txuriya, eta geo bi kandelero bi kandelakin. Eta urte guztiyan hua eukitzen zan hala. Eta klaro, kandelak zetu ahala, erre ahala ba berriyak eaman, ta trapua garbittu ta... baiño elizan beti hola harri zea batzuk zian, eta bakoitzak bere harriya, bere tokiya zekan.

-Bere sepultura edo?

-Bere tokiya zun han.

-Eta aulkiya, belauniko jartzeko aulkiya ta...

-Lekua izaten zan. Zea hua han, harriya, ta harri hartan bertan izaten zan belauniko jartzeko batentzat tokiya.

-Eta ogirik edo eramaten zan urtian sasoin baten?

-Ez. Hola zeik ez, hemen ez. Lekuak esaten dute batzuk baziela, baiño hemen ez.

-Eta beltzez jantzita, zenbat denbora pasa behar izaten zan?

-Bueno, ba hola gurasoa baldin bazan ba urte ta erdi gutxiñian beltzez, eta gero beste urte erdi bat ba txuriyakin pixka bat nahastuta eo... eo grisa o hola, nahastuta, baiño bi urte biñipin bai.

-Eta norbait oso gaixo zeonian eta apaiza etxera juten zan, ez, komuniyua eramatera.

-Bai. Elizakuak esaten zan.

-Elizakuak? Eta kanpanilla edo txiliña edo jotzen zun?

-Bai, kanpanillakin zea, monagillua.

-Bidian?

-Kanpanilla zea, juez, hala juten zan, bai. Eta birian zertzen zan jendia, jende gutxi izaten zen zan, ez oaiñ aiña, baiña behintzat jendia dana hua pasa arte belauniko jartzen zan lurrian, e.

-Hantxe bertan, edozein lekutan?

-Bertan, haik pasa arte. Bai, bai, bai.

7. Jaiotza eta bataioa

• Erref: DON-098/008

- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:17:04. **Bukatu:** 00:20:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

<p>Jaiotza. Ama emagin lanetan ibiltzen zen, eta norbait hiltzean ere laguntzen zuen. Jaiotzetan ere deitzen zioten. Bataioa, segituan. Elizan sartzea. Ategorrietako amaetxean dilistak eman zizkioten jateko, eta harrituta.</p>

Transkripzioa

-Eta jaio, berriz, umiak etxian jaiotzen zian.
 -Bai, etxian, bai.
 -Eta komadronarik-ero bazeon? Nola...?
 -Bai, jeneralian zea, o lenuotik gue ama asko ibiltzen zan hola. Ne ama asko ibiltzen zan hola, bai jaiotzetan ta bai heriotzetan. Han auzoko... hor auzoko jendia zeian, ba beti askok deitzen zion gue amai. Ta ordun o bate bat oso geizki zeonian o zeian errosaiyua errezatzea... ta hola. Ta jaiotzeko zeian´e bai, jaiotzeko zeian´e ba askok deitzen zion, gue amai.
 -Ze juten zan, laguntzera?
 -Bai. Gue ama asko juten zan hola, asko ibiltzen zan auzuan.
 -Umia jaiotzeko nola laguntzen zan? Ura berotu eta...
 -A, hoi ez dakit, zeatikan hoi ez dakit. Gue ama juten zala bai, baiña hoi ez dakit nik. Ez, zeatik ya guk nola... ya gue denboan ya zean izandu giñan.
 -Ta umia jaio, ta bataiatu ze iten zan, handik oso denbora gutxira, ez?
 -A, ahal bazan hurrungo egunian.
 -Eta zergatik ba hain azkar?
 -Ohitura.
 -Ohitura?
 -Ohitura.
 -Ez zan egoten beldurra hil ezkeru linbora jungo zala edo holako...
 -Bai ba, holako zeak izaten zian ta /da/. Baiño bai, ordun aguro bataiatzen zian.
 -Orduan ama ez zan jungo bataiora.
 -Eeeez, ez. Ez zun... ez zun juteik izaten. Geo, zeatu behar zunian, aurreneko jun bihar zunian eliza, bikaiyuai deitu bihar zitzaion. Eta harek zean, elizako atian zetuatzan zizun barrena sartzeko eliza, permisua ematen zizun.
 -A, bai? Eta ze errezo...
 -Aber ze pekatu izango zan haurra izatia! Baiña haurrakin jun eta bikaiyuai abisatu, eta harek errezo zea bat in, ta ordun eliza sartzeko permisua. Bestela ez zan permisoik!
 -Eta aurretik, etxetik ezin irten ala bai?
 -Bai, etxetik atea bai, baiño gutxi, e! Ez pentsatu, ez zuten...
 -Eta haurra izan eta gero, ondo jartzeko-ta, ze... iten zan, jaten zan zerbait bereziya edo?
 -Nik ez nun hola zetu izandu, nik neonek ez nun hola bereziya zetu izandu. Nei zea, maternalian zean izandu nun, bi zaharrenak, honen ama eta beste alaba... Maternal hor Ategorrietan zan, oain... Geo 18 de Julion zan, eta oain zaharren etxia uste det dola jarriya. Eta han ta... nik esan nun hola... esto... bai, lentejak eman xixkiatela jateko, lentejak eman xixkiatela ta: "Jesus, noski!". Horren ama behintzat: "Noski, haurra izan berriya eta

lentejak noski, jateko!". Zeian ta oillua o ez dakit ze ekarri zun beak, eta grasa... harek zun grasa ta...
-Orduan oillo salda edo...
-Hoi ba, hoi ba. Oillo salda.
-Indarra emateko.
-Holako zeak, holako zeak esaten zittuzten, eta horreatik harrittu, lentejak eman xixkiatelako.
-Emakumiantzat oillo salda eta oillua gizonantzat, ez?
-Igual bai!

8. Umetan, pilotan jokatzen gustura

- **Erref:** DON-098/009
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:20:24. **Bukatu:** 00:22:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Euskara eta politika
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetako jolasak. Pilotan jokatzen zuen, palan. Sokasaltoan kantu denak erdaraz. Eskolan, bandera igotzen zuten, eta "Viva España" kantatuz. Tabak.

Transkripzioa

-Eta, e, eskola... lehen esan dezu eskolan bi tokitan ibili ziñatela, eta zuen jolasak-eta zeintzuk ziran?
-A, nei beti gustatu izandu zitzaiten, ta oaiñ´e bai gustatzen zait... Osabak zea... osaba soltero hoitakuak ia ekarri [...]. Ta pala, pelotako pala, ta pelota ta klaro, zea gendunian, rekreua esaten gendun, hamaiketarik hamaika ta erditara izaten genun, eguartian. Eta ordun ba pelota plaza bertan, zeatik oaingo tokin ez zan, hemen zan pelota plaza. Eta pelota plazara etorri, eta pelotan.
-Pelotan?
-Gehiyo ere bazian neskak gustatzen zizaitenak, eta pelotan.
-Orduan neskak batera...
-Ta geo zean... bestela, neguan saltosokan. Sokan.
-Eta ze abesti edo ze kantatzen zenuten sokasaltuan?
-Dana erderaz, e!
-Dana erderaz?
-Dana erderaz. Oain ez naiz goatzen sokasaltokua. Zean bai, eskola juten giñanian, bai neskak eta bai mutillak, biyak hor beatzitan, izaten genun bandera iyotzia, bandera espaiñola, klaro. Bandera iyotzia. Eta hua iyoez, hoi bai: "Viva España" kantatu bihar izaten genun, aber ba. Bai.
-"Cara al sol" eta holakuak?
-"Cara al sol" ez naiz goatzen, baiño "Viva España" bai.
-Hori egunero-egunero?
-Eunero.
-Ondo ikasiko zenuten, orduan.
-Bai, bai, bai. Biharko! Biharko ikasi!
-Eta kaniketan-eta jolasten zenuten?
-Ez, kaniketako...
-Hori mutillak gehiyo?
-Bai, mutillak gehiyo... ta hola anayakin etxian zeoze, baiño ez... kaniketan

ez nun... pelotan ibiltzen giñan.
 -Eta e... tabekin?
 -Tabakin, bai. Tabakin ibiltzen giñan.
 -Ta hori nola zan?
 -Ba tabak zian zeenak, arkume, arkume hexurrak zian tabak, eta ba...
 Nones, ta pones ta... ez naiz goatuko oain. Eta pelota gora botiaz haik
 moitu in behar zenittun. Moitu, ta ez bazenun ondo moitzen, txanda
 bestientzat.
 -Orduan txandaka jolasten zan...
 -Bai, txandan, hua txandan jolasteko zan.
 -Eta e, zer zeukan, alde bakoitzak izen bat?
 -Bai, bai. Horreatik, [...] eta bestia pones ta... bestiakin ez naiz goatzen.
 Lau izen. Klaro, lau zeetan jartzen zan ta, lau formetan.

9. Eskolan piper egin zuten eguna

- **Erref:** DON-098/010
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:22:53. **Bukatu:** 00:25:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Bihurrikeriak. Kuadrillan joaten ziren eskolara. Piper egin zuten eguna.
 Kilker bila.</p>

Transkripzioa

-Ta gero, ez dakit... bihurrikeriak-eta iten zenitun?
 -Bueno, bihurrikeiyak... ez dakit ba... geo kuadrilla etortzen giñan, zea,
 basarritatik kuadrilla etortzen giñan eskola. Eta, hoi bai, hoi goatzen naiz,
 urte batian piper in gendula, eun batian piper ein gendula. Baiño ez zan, ez
 zan intentzio txarrez iña ez zan, e. Goratzen naiz hor, e, zea Merker o
 baserriyan; oain hua´e botia do, baserri asko botia de, ta hua´re botia do.
 Ta hor arbolian zan kolunpiyua. Eta hango zea, hangua ne edadekua zan,
 hogeita bat urtekin hil zan baiño... ne edadekua zan. Eta hara juten
 giñanian, harek behiñ´e presik ez zun izaten, prepatzeko ta juteko ta...
 Gurasuek ez ziyoten inportantzik ematen, ta noizbait´e preparatu ta... guk
 ze iten giñun? Kolunpiyuan ibili! Bitartian, txandan. Eta beste
 baserrietakuak bagenitun hor ta... Eun batian denboa askuan zetu giñala
 bai, ta noizbaite prepatu da neska hoi, ta jun gea eskola, ta jarri gea
 atenditzen, ta... oi, ez dakit ordun zein zea... bikayua o, zea honek. "Oi
 ene, beandu diñau, ta oin ze in bihar diau? Ezin sartuko [...] ba oain?". Eta
 hola, ta alde in gendun hortik jun, beheko basarritan barrena, ta buelta in,
 ta hala etxea jun, bate zera jun be, eskola jun be atsaldi hartan.
 -Eta etxian esan zenuten?
 -Bai zea! Hoixe in behar genun, esan!
 -Eta kilkir billa-ta ibiltzen ziñaten?
 -Beno, hoi zean, geo... geruo bai, baina hola umetan ez. Hola ume-umetan
 ez. Geoztik bai, e. Gero, ni... baki horrek´e. Kilkerra gehienian izaten nun,
 kilker denboran. Etxian, hemen.
 -A, bai?
 -Bai, gustatu iten zait. Gabian o esnatu, ta kilkerra kantari baldin bado,
 gustatu iten zait. Bai, ta lengo... lengo udaberriyan´e harrapatu ta bai, euki

genun... bai, santiyuak ta pasa-ta aurrero behintzat... ta euki nun, bai...
 Ogi pixkat jarri ta letxua hostua ta...
 -Eta kilkerra nola... bere zulotik ateatzeko, ze iten da?
 -A, ba... zeakin, esto, belar mehe-mehe-mehe batekin, harekin zetu. Ta azkuria iten zayo, ta ateatzen da.
 -Eta gero nun sartzen zenuten, poten baten ala...?
 -Nik zean, este... kiloko zea... melokotoyana ta nola... kiloko poto hoitaikoa. Hoitakoan euki izandu det beti, zeatik kilkirrentzako zea, kaiola propiyoak baira, baiño oso ttikiyak, iya moitzeik ez dakatenak. Eta nik, nik potuan eukitzen det.
 -Eta habia billa-ta, kabi billa-ta ibiltzen ziñaten?
 -Ez, gu ez. Anayak, e, bai, baiño gu ez. Anayak bai, baiño gu ez.

10. Arropaz aldatu, astean behin

- **Erref:** DON-098/012
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:26:06. **Bukatu:** 00:29:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

Beti izan zuten ura eta argia. Arropa etxean garbitzen zuten. Xaboia. Tinan egiten zen lixiba. Astean behin aldatzen zen arropa, jai goizerako. Dutxarik ez zuten; fregaderan garbitzen ziren ala ura berotuta.

Transkripzioa

-Ta zuek ura ta argiya beti euki zenuten?
 -Bai, guk bai. Beti izan izandu genun, hemen basarriyan ura ta argiya guk. Hala ezautu genun beti.
 -Eta erropa garbitzeko-ta nola?
 -Etxian.
 -Etxian?
 -Bai. Bai. Bai, ur korrientia [...] bezela gendun, ta etxian. Erropa garbitzeko-ta etxian.
 -Eta ze jaboi erabiltzen zan edo...?
 -Ba jaboi hautsa zea bat... oso korrientia.
 -Hautsa?
 -Bai, jaboi hautsa, oso korrientia, eta geo lejia. Geo lejia. Ta geo pastillak´e bai, pastilla zea hoik... jaboi pastilla zea hoik: Lagarto zea hoitakuak. Hoitakuak´e bai.
 -Eta ura berotu iten zan ala ez?
 -Ba orduan ez zan oain bezela, labadoraik-eta ez baizan, ta ordun holako tini zea bat gendun, tiñi zea bat. Eta han jartzen zan bezperan arropa zuriya beratzen, lixibakin izaten zan, lixibakin. Jaboi kondarrak eta jaboi hauts harekin ta ur berua zetu, ta han jartzen zan, hurrungo eunian garbitzeko.
 -Beratzen, zikiña biguntzeko edo...
 -Bai, hurrungo egunian errexo izateko... garbitzeko. Zeatzen zan, eta hua bildu ta, esan dizut, hamaika laun, ta astian behin zeatzen zan, aldatzen zan. Ez da oain bezela, zea, eunian hiru bider ta hola aldatzen! Orduan erropaz aldatu iten zan jai goizeako. Jai goizian aldatu ta geo aste

guztiyan... Hoi gue etxian, eta beste batzutan, berriz, oaindik gutxiyo. Bueno, gue etxian beti igande goizian dana arropa garbiya, bai barrengo erroa ta bai gaiñekua. Eta geo ba aste guztiyan harekin.

-Eta komuna nolakua zan?

-Guk komuna zea genun, ondo genun. Bonbaik-eta ez, e, baiño goiyen zean genun ta... gue, nere aita igeltserua zan, ta harek beak jarriya, komuna gendun ondo. Ondo genun komuna. Geo, bere tubuakin, tuberiakin, kanpoa... bueno, kanpoa, ikuillua zetzen zala.

-Eta dutxarik ez zan eongo!

-Bai zea, dutxa!

-Hori iñun ez zan eongo, ezta?

-Ez, ez, dutxaik-eta orduan ez zan.

-Eta nola iten zenuten garbitzeko-ta?

-Bueno, ba zean, sukaldian fregaderan, musua ta zeak garbitzeko ta zean... ta geo gaiñekua kalderan. Kalderan ura hartuta.

-Kalderan ura hartu, ta zatika?

-Bai ba.

-Eta bañe...

-Ez zan oain bezela, gaiñea, zeatikan oain bati aitzen, hartzen badiozu izardi usaiya, uf! Iruitzen zaizu... bueno, horrek bihar du izan... izardi usaiya. Baiño ordun danak ibiltzen giñan. Ordun danak ibiltzen giñan izardi usaiyakin, eske eskuz garbitu bihar zan dana ta ez zan oain bezela, ta gutxiyoric'e. Ta ordun ez zan, ordun normala zan izardi usaiya zetzia, ibiltzia. Batzuk gehiyo ibiltzen zuten, klaro, bestiak baiño, segun...

-Eta zuek sekula jun ziñaten... juten ziñaten hondartzara ala...?

-Bai zea! Hondartza? Ujum. Bueno, tiratu're ez, e! Ez, tiratu're ez hondartza jutia behiñ'e. Mendia bai, baiño hondartza... ez.

-Eta arroketara ala... ezta're?

-Ez, ez, gu ez.

11. Dantzara Txikierrira eta Oialumera

- **Erref:** DON-098/013
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:29:18. **Bukatu:** 00:32:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Mendira joaten ziren bi ahizpa jai arratsaldean. Txikierrira eta Oialumera, Ergobira, joaten ziren. Kongregazioak. Zinta eta medaila. Dena bekatu.</p>

Transkripzioa

-Gu mendira.

-Mendira.

-Jai atsaldetan-ta ateatzen giñan, klaro, neska gaztetan; bi ahizpak ateatzen giñan. Eta zean, este... soinua jotzen zuten, hor Oiartzunen, Txikierrin, o bestela Ergobin Oialuman; filarmonika jotzen zuten. Klao, batek jotzen zun filarmonika, ta hua gendun zea guziya, musika guziya.

-Eta dantza...

-Eta juten giñan bi ahizpak. Dantzan sueltuan baiño... "a todo meter". Eta ateatzen giñan beti bi ahizpak bakarrik etxetik, baiño juten bagiñan

Oialuma genitun han launak; juntatzen giñan... kuadrilla juntatzen giñan. Eta Txikierdia juten giñanian´e juten giñan bi ahizpak bakarrik, ta han genun beste kuadrilla, hangoa, beste aldekoa, o zea, baiña ez besteak, e. Oialumako launak ez, beste batzuk. Baiña haik´e launak, han´e launak genitun, ta juntatzen giñan hola kuadrilla juntatzen giñan. Eta hola pasatzen genun jai atsaldia. Justu-justu lau o bost ordu izaten genitun dantzaako, aste guziya lanian pasata.

-Eta hor juntatzen ziñaten neska-mutillak.

-Bai, hoitan bai.

-Eta dantza lotua galaraziya zeon ala libre zan?

-Ez, galaraziya ez zeon; oain, Txikierdin Oiartzungo jendiak han eoten zian beira. Gu danea ibiltzen giñan, baiño sueltua gehiyena jotzen zuten.

-Ta orduan kontrolatzen ibiltzen zian.

-Bai, bai, kontrolatuak giñuzen.

-Eta hemen kongregaziyorik-eta bazeon?

-Bai, bai. Komuniyua indakon kongregaziyuan. Mutillak San Luisen kongregaziyua ta neskak Imakuladana.

-Imakuladana... Ta horrek, kongregaziyuan egotia, ze esan nahi zun?

-Ba hillian behin izaten zan... zera, bezpereta etorri bihar. Bezperak izaten zian aatsaldian, ta hara etorri bihar. Bezperak aurrena, geo errosaiyua, geo prozesiyua... ta zean ta... Geo, handik ateatzian, korrika jun bihar Oialuma o Txikierdia. Handik ateatzian...

-Eta prozesiyua... hori noiz egoten zan?

-Ba hoi... eozein jaitan, erozein jaitan zeetan izaten zan, baiña plazan bertan, e, plazan bertan bueltaka.

-A, plazan bertan...

-Bai, plazan bertan.

-Eta jantzi-ta normal iten ziñaten, ala...?

-Ez, normal.

-Medaillan bat edo...

-Bai, zeakin, zintakin medailla. Guk Imakuladana ta San Luisena mutillek zuten; haik´e zintakin.

-Eta ze koloretakua zan zuena?

-Zinta, urdiña.

-Urdiña?

-Bai. Mutillena ez dakit, uste det txuri-urdiña zutela haik, baiño guk urdiña.

-Eta konfesatu´re in beharko ziñaten.

-Aber ba! Aber ba! Hain geiztuak giñan...

-Dena pekatu zan ta...

-Bai ba, dana pekatua ordun.

-Eta zer zan pekatua ordun? Ze...?

-Ba dana! Dantzan zean mutillakin dantzan zea, lotuan ibiltzia´re pekatua zan ta! Gu ibili iten giñan, e.

-Eta muxu ematia? Masaillian muxu ematia pekatu zan?

-Jolin, baiña zeñek ematen zun ordun masaillian muxu?

-Ez? Esaten dute batzuk, masaillian muxu ematia ez zala pekatu, baiña ezpanetan ematia baietz eta...

-Bai, bai, hoi... hoi esaten zuten, bai.

12. Elizaren indarra

- **Erref:** DON-098/014
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:32:38. **Bukatu:** 00:34:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

<p>Elizaren indarra. Garizuman, kalbarioak. Lazaro Eguna. Soinurik ez zen egoten, eta Pazkoa Egunaren zain. Baraua. Pazkoazkoa: komulgatzeko txartela.</p>

Transkripzioa

-Orduan e, elizak indar haundiya zeukan, ezta?
-Dana, beak aintzen zuten. Beak aintzen zutena esaten dizut ba. Erderaz, dana erderaz hemen in bir zan dana erderaz.
-Eta garizuman eta ze...
-Garizuman jaiyero etorri bihar bezpereta, kalbaiyuak izaten zian ta. Kalbaiyuta, Garizuman, eta Lazaro Eguna lehen igandia zan, Lazaro Eguna esaten genduna lengo igandian zan. Eta ya soiñuik ez zan izaten. Ez zan iñon soiñuik izaten ta... jo, gue zea, Pazkua euna noiz alleatuko ete zan! Zeatik Lazaro Eguna eta Erramu Eunian nola ez zan soiñuik izaten, ba hurrengo egunai itxoin bihar, Pazkoa Egunai. Eta Pazkoa Eguneako preparatzen giñan, alpargatak jantzita.
-Eta nun ikasi zenun dantzan, zure kaxa?
-Bai, geren, eren zean. Klaro, ondo o gaizki, ez giñan liatzen ta.
-Eta esan dezu musikarik ez zala egoten, eta beste... bijilia ta ere in beharko zan...
-Bijiliya, bai, iten zan. Eta Pazkoazkoa´re bai, in ber izaten zan. Pazkoazkoa izaten zan Garizuma denboan txartela eaman biher zenun komuniyua... komulgatu ziñala zetzeko txartela eaman bihar izaten zan.
-Norberan izenakin ta?
-Izena ta jarrita, bai ba.
-Jakiteko nor jun dan ta nor ez...
-Hoi da. Hoi da, bai.
-Eta hori txartela, ze, aurretik etxera eramaten zuten, ala?
-Aurretik txartela etxea eaman, ta geo txartelai izena jarri, eta geo txartela doblatu ta komulgatzea jutian han bota.
-Norbaitek botako zitun igual bi!
-Besten batena e bai, e? Hori ez dakit!

13. Altza herria zenean

- **Erref:** DON-098/016
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:36:56. **Bukatu:** 00:40:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Bera jaio zenean, Altza herria zen. Itsasoraino heltzen zen. Donostiari saldu zioten, gosete garaian. Donostiako alkateak hitzaldia eman zuen horri buruz. Altzatarra sentitzen da. Etorkinak.

14. Etorkinak Altzara iritsi zirenean

- **Erref:** DON-098/018
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:40:32. **Bukatu:** 00:41:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

Kanpotarrak noiz joan ziren Altzara. San Isidro auzoa izan zen egiten lehena, 50eko hamarkadan. Aita hantxe ibili zen igeltsero. Hiru familia bizi ziren etxebizitza bakoitzean.

15. Altzan dena baserriak lehen

- **Erref:** DON-098/019
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:41:58. **Bukatu:** 00:44:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Lana. Altzako lantegiak. Olio lantegia. Luzuriaga. Portua. Nerecan gero egin zuten. Baserriak bakarrik zeuden lehen. Altzako plaza ingurua nolakoa zen. Lehen, bolatokirik ez.

16. Sagardotegiak, tabernak eta bertsolariak

- **Erref:** DON-098/020
- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 00:44:49. **Bukatu:** 00:48:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Sagardoa ia baserri guztietan saltzen zuten lehen, basoka. Dolare handia zuten Pelegriñenen. Txirrita ibiltzen zen Altzan. Bertsotarako afizioa. Otxokiko Patxi. Kataliñeneko Juan Mari. Martilun jatetxea. Emakumeak ez ziren tabernara joaten.</p>

17. Jostun langintza

- **Erref:** DON-098/021
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:48:37. **Bukatu:** 00:51:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Jostun batengana joan zen josten ikastera, Martutenera. Soinekoak, galtzak... Kanporako ere josten zuen. Kalera ezkondu zen, Casares etxera; hura bota zutenean, Martilunera joan ziren.

18. Beheko sua

- **Erref:** DON-098/023
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:52:01. **Bukatu:** 00:54:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Beheko sua zuten baserrian. Amak eramaten zuen sukaldeko martxa. Ipar haizearekin kez betetzen zen. Laratza. Lurrezko kaxuelak.

19. Gosete urteetako janaria

- **Erref:** DON-098/024
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:54:45. **Bukatu:** 00:56:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gosete urteetan, patata asko eta haragi gutxi. Izebak arraina ekartzen zuen Donostiatik. Arrain saltzaileak. Babarruna. Taloa.

20. Estraperlo garaia

- **Erref:** DON-098/025
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:56:10. **Bukatu:** 00:58:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Estraperlo garaia. Konfiantzak diruak baino gehiago balio zuen. Ogi zuririk ez. Errotara artoarekin, Martutenera.

Transkripzioa

-Eta hor egon zan estraperlo garai bat, oliyua eta falta zana...
-Bai, estraperlua. Ordun esaten zan diruak baiño gehiyo balio zula konfiantzak, zeatik dendetan, klaro, razionamentuak izaten zian, baiño razionamentua baiño gehiyo zeatzen zutena, hua kontrabanduan saltzen

zuten. Eta amistadia baldin bazenun, konfiantza baldin bazenun eman iten zizuten, baiña dirua izanatik ez bazenun konfiantzaik ez zizuten ematen. Eta orduan esaten zan konfiantza hobia zala dirua baiño.

-Eta zuek ogi txuriya-ta lortzen zenuten?

-Bueno, ogi zuriya, Jesus, noiz hasi giñan gu ogi txuriya jaten? Buenooo, oso oso nekez. Nik izango nittun hogeitertetik gora, ogiya, hola ogi normala jaten genun asetzeko. Hogeitertetik gora.

-Aurretik, beltza?

-Holako redondo batzuk ematen zittuzten! Baiño algarroba haziyak-ta izaten zittun tartian. Hori-horiya. Ta gue osaba soltero hoitako batek biñipin gaitz iten ziyola harek, ta lanea ´re taluakin juten zan hua. Gaitz iten ziyola ta.

-Ta hemen artua ta...

-Iriña.

-Iriña iteko, errotarik bazeon?

-Bai, errota, gue terrenoetatik Martutene aldea, muga iten zun errotako terrenuak; gure basarriko zeakin muga iten du /iteu/. Eta hua zan errota. Han presa ere bazan, uren presa, eta...

-Eta ez zuten itxi?

-Itxi?

-Gose garaian prezintatu edo...

-Zean, gose garayian zean bertan ez dakit, baiño geora behintzat ba ematen ziguten zea, artua eaman ta iriña ematen ziguten. Ta bizkarrez juten giñan, bai. Ni hola neska gaztia askotan jun izandu nintzan.

-Astorik-eta bazenuten?

-Ez, nik etxian ez nun behiñ´e astoik ezautu. Bihorra bai, e, bihorra bai, karruakin ibiltzeko.

21. Baserriko bizimodua: baratzea eta txerri lanak

- **Erref:** DON-098/026
- **Iraupena:** 0:04:08. **Hasi:** 00:58:25. **Bukatu:** 01:02:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Baserriko tresnak. Idirik ez zuten. Behiak esnetarako eta lurra lantzeko. Txerriak hiltzen zituzten neguan. Gibela analizatzera bidaltzen zuten. Harakinak zatitzen zuen txerria. Odolkiak.</p>

22. "Txerrimunik"

- **Erref:** DON-098/028
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 01:02:50. **Bukatu:** 01:04:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>Txorizoak hurrengo egunean egiten ziren. "Txerrimunik" apaizari ez. Bedeinkazioak.</p>

23. Makil dantzariak, Altzako festetan

- **Erref:** DON-098/030
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 01:06:16. **Bukatu:** 01:08:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

<p>Altzako festak. Pilota partidak. Umetan San Martzial egunean eliza aurrean makil dantzariak izaten ziren. Harri apustuak.</p>

24. Harri apustuak eta kantu eskeak

- **Erref:** DON-098/032
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 01:08:25. **Bukatu:** 01:10:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

<p>Harri apustuan altzatarrak ere ibiltzen ziren. Guardaplata baserrikoak. Santa Ageda eskerik ez, Gabonetan bai umeak kantuan. Inauterietan ere bai, arrautza eske.</p>

25. Frantzizkotarren misioak

- **Erref:** DON-098/034
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 01:10:17. **Bukatu:** 01:11:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak

Laburpena:

Misioak izaten ziren Aste Santu aurretik. Sermoiak. Asko moja joaten ziren. Aita Lasa frantziskotarra.

Transkripzioa

-Eta Aste Santu aurretik-ero izaten ziran misiyuak...
-Misiyuak, jolin.
-Hemen ´e bai?
-Bai, bai, bai. Zortzi bat eunian, aste guziyan misiyuak. Ta jende guziya zea... prozesiyuan bezela, zea... danak eliza.
-Eta esaten dute sermoi beldurgarriyak izaten zirala misiyotakuak.

-Hoi bai, hoixe ba!
 -Inpernua gora eta behera...
 -Bai. Ta ordun nee ezaunak, ne edade moukuak ta zea... bai moja jun´e.
 -Bai, e?
 -Klaro, hombre, hoixe! Gu ez giñan jun, baiño bazian moja junak. Ne edadekuak, e!
 -Etortzen zianak sermoiyak-eta ematea, ze zian, frailiak ala...?
 -Frailiak. Franziskanoak behintzat. Ez dakit zuk aitzea badezun, Padre Lasa ta... Padre Lasa zan oso famatua, oso... etorri haundiko sermoilaiya zan hua.
 -Eta harek euskeraz ala erderaz, e...?
 -Ez, euskeraz.
 -Euskeraz.
 -Haik euskeraz.

26. Altzako euskara

- **Erref:** DON-098/035
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 01:11:16. **Bukatu:** 01:12:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Altzako euskara nolakoa den. Hika erabiltzen zuten senideek, gurasoekin zuka. Apaizari berorika.</p>

27. Automobilik eta telefonorik gabeko garaia

- **Erref:** DON-098/036
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 01:12:55. **Bukatu:** 01:15:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

<p>Automobilik ez zebilen garaia. Medikua oinez ibiltzen zen. Telefonoa baserri bakarrean zegoen. Irratirik ere ez, ezkondu aurretik. Hizketan, bertsotan. Larunbatean ere lanean. Arto zuriketa, ganbaran.</p>

28. Orrazkera eta oinetakoak

- **Erref:** DON-098/038
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 01:17:18. **Bukatu:** 01:18:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak

Laburpena:

Ilea etxean moztzen zuten, bata besteari. Modako orrazkerak. Dantzarako dotore. Udan alpargatekin. Abarkak neguan.

Transkripzioa

-Ta zuek pelukerira-ta ez ziñaten jungo...
 -Eee... geren artian moztutzen genun guk, zea... bi ahizpok, bata bestiai moztutzen giñun. Oso ondo ez gendun ingo, baiño behintzat orduako... Baiño asko ibiltzen giñan hola ta!
 -Eta ruluak jarri... edo orduan ze...?
 -Ordun ruloik ba al genun? Ordun ba al zan? Ordun ez dakit, ez dakit... akaso pelukeritan izango zan, baiño gue eskutan ez.
 -Eta zer zeon modan orduan? Ile motza, luzea...?
 -Ba nik hola... melena zea bat ibiltzen genun guk, hola melena zea bat. Motxa.
 -Eta belarritakuak-eta?
 -Bai, belarritakuak bai, beti.
 -Beti dotore...
 -Belarritakuak bai.
 -... dantzara juteko behintza bai, ez?
 -A bai. Klaro.
 -Ta zapatak-eta? Aldatu...
 -Bai, zapatak zea... puskatzen bazian geok konponduta igual, geok ahal genun bezela konponduta! Jeneralian udara partian behiñik bin alpargatakin.
 -Alpargatakin.
 -Alpargatakin.
 -Baiña alpargatak busti ezker, geizki...
 -Bai, baiño... ba! Ez genun ordun... sentitzen al da ba? Orduan ez genun sentitzen. Total, etxian lanian ari giñala´re bustitzen giñan. Ez zan oain bezelako erropik-eta laneako izaten, ta oiñetakoik eta... Oain bezela goantiek-ta hola? Ezta pentsatu´re.
 -Eta abarkak erabiltzen ziran?
 -Abarkak? Bai, abarkak neguan ibiltzen genitun, eta udaran alpargata zaharrak. Zaharrak... puskatuak, baiño... bueno.

29. Suge gorrien beldurrez

- **Erref:** DON-098/039
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 01:18:48. **Bukatu:** 01:20:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Fauna » Natura » Basoko animaliak » Narrastiak

Laburpena:

<p>Sugeen beldur, udan. Suge gorriak. Kosk eginez gero, zer egin. Goieritik artaldea etortzen zen Aitzondora, neguan. Karobirik ez du ezagutu lanean, txondorrik ere ez. Basorik ez zegoen Altzan.</p>

30. Ferratzailea, Herreran

- **Erref:** DON-098/040
- **Iraupena:** 0:03:53. **Hasi:** 01:20:54. **Bukatu:** 01:24:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

<p>Ferratzailea, Herreran. Perratzailearen lanak. Ferrak nolakoak diren. Zortzi ferra behar ditu behiak, abereak lau. Erreteriarra feriara. Donostiara gutxitan. San Sebastian ez, San Martzial zen egun handia. San Pedro eguna.</p>

31. Prozesioa, gorputz egunean

- **Erref:** DON-098/042
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 01:25:00. **Bukatu:** 01:26:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Prozesioa, Gorputzi egunean. Estandarteak eramaten ziren. Altzako elizatik Santa Barbara ermitaraino. Hura ere bota zuten. Pazkoa hurrengo egunean, Ubako Ama Birjinarengana eramaten zituzten umeak.

32. Mutilak ezagutzeko garaia

- **Erref:** DON-098/046
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 01:28:18. **Bukatu:** 01:30:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Hernanin ezagutu zuen senarra, negu partean. Mutilek pezeta bat ordaintzen zuten dantza egiteko. Nobiotan urte asko. Umeak Paristik etortzen ziren.

Transkripzioa

Ba, gaiñera nik uste det /ustet/ Hernanin neguan, negu partian ezautu giñala. Bai, gu... esan dizut bi ahizpak ateatzen giñan, eta habek bi launak, bi laun zian hola ateatzen zianak ordun. Eta lauok hasi giñan hola zetzen, ta bueno ba dantza, ta halako tokia ta bai, ta hola hasi giñan. Ta holaxe. Gaur arte.

-Hernanin, dantza itiarren mutillak pagatu edo...

-Pagatu itten zuten, bai. Pezta bat. Ordun pezta bat patzen zuten.

-Eta pegatina bat, o zer jartzen zuten?
 -Bai, pegatiña jartzen zuten. Eta neskak batez, ez gendun patzen. Mutillak bai.
 -Etxe laguntzaik izaten zan?
 -Bai, izaten zan etxea laguntzea, hoixe!
 -Ta lehen denbora asko iten zan nobiyotan eta, ez?
 -Ba bai, bai, urte asko. Klaro, urtiak pasatzen zian. Baiño lehen esan deuna: jai atsaldian lau-bost ordun bakarrik ikusten giñan. Igande atsaldian, gaiñekuan astia ez do...
 -Nobiyua ikusteko goguakin, orduan! Astian behin bakarrik...
 -Bai ba! Bai, nobiyotan hasi, nobiyo hasi ezker, nobiyoakin, ba klaro, ordun astian nobiyua ikusteko... mutilla ikusteko goguakin ordun.
 -Eta etxian-ta esaten zuten zerbait? "Kontuz ibili", "Ez asko arrimatu", eta holakorik?
 -Ez, guri, guri ez ziguten... guri ez ziguen holako zeaik esaten.
 -Eta esplikaziyorik edo sekula umiak zela iten dian ta holakorik etxian?
 -Ez, behiñ'e ez. Holako konbertzaziorik ez da sekula atea izandu.
 -Ez zan hitz egiten holako kontuei buruz, iñun...
 -Ez.
 -Ez etxian ta...
 -Ez, ta lagunen artian'e guk nesken artian behintzat ez.
 -Eta umetan zuek... ze, ze esaten zuten ume bat jaiotzen zanian, nundik zetorren? Nundik etorri zan edo?
 -Paristik! Paristik etortzen zian umiak.
 -Eta nola?
 -Ez gendun zetzen...
 -Hegan, ala...?
 -Ez gendun zetzen, ez genekiun. Paristik etortzen ziela umiak eta.
 -Eta galdetu ere ez.
 -Ezta galdetu're! Galdetu ez, ta beste esplikaziyoik're ez.

33. 'Txirrita'ren bertsoak

- **Erref:** DON-098/049
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 01:33:47. **Bukatu:** 01:35:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kankar » Bertsoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Txirritaren bertso batzuk esaten ditu.</p>

34. Sendabelarrak

- **Erref:** DON-098/052
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 01:39:01. **Bukatu:** 01:42:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikak eta sasimedikuak
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Berbenen enplastoan nola egiten den. Gauerako, hanka azpian lotuta. Plantiña belarra hankak gozatzeko. Gibel belarra. Ukendua egiten zuen amak. Herrera joaten ziren drogeriara, argizari bila. Ebaki belarra. Belarri belarra. Pixa belarra.

35. Tratuarekin plazara joaten ziren baserritarrak

- **Erref:** DON-098/055
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 01:45:30. **Bukatu:** 01:47:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

<p>Baserritarrak Herrerara eta Donostiara joaten ziren tratuarekin. Emakumeak kanpoan eta barruan egin behar. Gizonak siesta, emakumeak ez. Umeen heziketa, lehen eta orain.</p>

Transkripzioa

Dana basarriya zan, dana hua, eta geo berdura ta zea... Batzuk gehiyo ta beste batzuk gutxiyo, ta gaiñeakuan ba... dana basarriya. Dana basarriya zan.

-Jende asko jungo zan tratuakin, jende asko jungo zan plazara.

-Bai. Bai, plazara jendea juten zan.

-Danak karruakin?

-Batzuk herriraiño bakarrik, ta beste batzuk ba Donostia, esnia partittu ta...

-Batzuk oiñez...

-Hemen Merkelgua bakarrik juten zan oiñez astuakin, baiño Herreraiño josten zan, e. Baiño gaiñeakuan gehiyenak aberia ta karruakin.

-Klaro, urruti...

-Donostia. Donostira. Ta esaten dizut, esnia ´re etxez etxe partitzen zan ta eunero in behar zendun hua. Jai ta aste.

-Ta esnia jetzi, zeñek... behia jetzi nork iten zun?

-Ba guk makiña bat aldiz. Esan dizut: gizonen lana dana iten genun.

-Gizonak, e, etxe barruan ez zun ingo lan haundirik. Ez bazan... igeltsero lana ta bai, baiña...

-Bai zea.

-Garbitu etxia ta sukaldian ta...

-Bai zea! Bai zea! Oaingo gaztiak ingo dute, gañeakuan linguak ez dute iten.

-Emakumiak, berriz, bai kanpuan ta barruan, biyak, ez?

-Bai. Ta hoi zelebria izaten zan, e. Baserrin lanian ai, zelayian ai, eta etxea etorri eta bazkaldu, eta emakumiak sukaldeko lanak in bitartian gizonak siesta! Ta siestatik altxatzian berriz lanea.

-Emakumiak siestarik sekula ez.

-Ez, emakumiak siestaik ez.

-Eta umiak ´e emakumian kargu?

-Bai.

-Ez, normalian...

-Bai, umiak behin gobernatu, zeatu ezkerro bakizu, basarritan kalea, zerea, kanpoa. Ttikiyak diala atenditu bihar, baiña gaiñekuan...

-Bai, baiña ez zeon lehen hainbeste kontu, ez? Oin umiai begira-begira...

-Bueno! Bueno! Uain bezela umiak! Nehi duten guziya iñez ta zean, bueno. Zeoze oker iten bazun, ipurdiko bat. Eta fuerte, ta hurrunguan ez da iten hua. Oaingo umiak, berriz, "ai, nola ba, ez ikuitu umiak!". Nik ez dakit oaingo umiakin, hoik haunditzian nik ez dakit zer izango dian.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-02-13

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com